



INTXAURRONDO HEGOIA IP

Familia agurgarriak:

**DIRU LAGUNTZARI buruzko informazioa:**

2020/2021 ikasturteko dirulaguntzak (bekak) eskatzeko epea **urriaren 9tik azaroaren 9ra izango da.**

**laz bekadun izandakoek:** Zuen seme-alabekin batera bidaliko dizuegu aurreko ikasturteko eskaera orria eta telematikoki ontzat eman edo aldatu ahal izango duzue, orrian bertan agertzen den Egiaztatze Kodea erabiliz. Ziurtagiri elektronikoa izanez gero, zuen kabuz amaitu dezakezue eskaera. Bestela, Eskolan aurkeztu beharko duzue, aldezturik inprimatu eta sinatuta. Eskertuko genizueke, ahal den neurrian tramitea zuen kabuz egitea eskola barrura ahal denik eta jende gutxien sar dadin pandemia egoera honetan. Ezinbestekoa baldin bada, eskolara deitu beharko duzue beka tramitazioarako **AURRETIKO HITZORDUA** eskatzeko.

**Lehenengo aldiz eskatzen dutenek ere AURRETIKO HITZORDUA eskatu beharko dute eta jarraian zehazten den dokumentazioa ekarri beharko dute eskolan eskabidea betzeko unean.**

Besterik gabe, har ezazue gure agurrik beroena

ZUZENDARITZA TALDEA  
Donostian, 2020ko urriaren 6an

**ESKOLAN BEKAK  
TRAMITATZEKO ORDUTEGIA:  
Urriaren 12tik azaroaren 6ra:**

**9:15etatik 11:00etara eta  
15:00etatik 16:30etara  
HITZORDUA ESKATUZ**

Estimadas familias:

**Información sobre BECAS:**

**Del 9 de octubre al 9 de noviembre** estará abierto el plazo de solicitud de ayudas económicas (becas) para el curso 2020/2021.

**Los renovantes:** os enviamos con vuestros hijos e hijas el impreso de solicitud del curso anterior para comprobar los datos y que podáis validar o modificar telemáticamente esta propuesta de solicitud, utilizando el código de verificación que aparece en el impreso. Después podréis validarlo mediante certificación electrónica. Si no, tendréis que acercaros al centro y presentar el impreso firmado. Os rogamos que, siempre que sea posible hagáis el trámite vosotros para así minimizar el acceso de las personas al centro en esta situación de pandemia. En el caso de que sea imprescindible acudir al centro, deberéis poneros en contacto por teléfono y solicitar CITA PREVIA para la tramitación de la beca.

**Los que solicitan la beca por primera vez, pueden pedir CITA PREVIA y se cumplimentará la solicitud en el propio centro. La documentación a presentar se detalla a continuación.**

Un cordial saludo

EL EQUIPO DIRECTIVO  
San Sebastián, a 06 de octubre de 2020

**HORARIO PARA TRAMITAR  
LAS BECAS EN EL CENTRO:  
Del 12 de octubre al 6 de noviembre**

**09:15etatik 11:00 y de 15:00 a  
16:30 CON CITA PREVIA**

## AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

• **HIRI-ONDASUNEN KATASTROKO BALIOAK:** Etxebizitza bat baino gehiago izanez gero, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kopia aurkeztu beharko da, bizikidetzak unitateko kideen jabetzako guztia, hain zuzen ere.

• **(\*)DIBORTZIO, BANANTZEA, ERREGISTRATUTAKO IZATEZKO BIKOTEKIA DESEGITEA EDO ANTZEKO EGOEREN KASUAN:** Dibortzio-edo banatze-epaia, Hitzarmen arautzaileak, Udalak eginiko bizikidetzaziurtagiria, Pentsioen egiaztagiri eguneratuak eta, hala badagokio, aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotekidearen diru-sarrerak.

• **AITONA-AMONAK:** Elkarbizitza-ziurtagiria, udalak emandakoa.

• **(\*) DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK:** Desgaitasun-gradua aitortzen dion egiaztagiria.

• **(\*) HARRERA-FAMILIETAN DAUDEN ADINGABEAK:** Harrerari buruzko foru-aginduaren fotokopia eta dagokion aldundiak erabakitako harrerako baldintzen fotokopia.

• **NEBA-ARREBA UNIBERTSARIOA:** Matrikulatuta dagoela egiaztatu eta errentamendu-kontratua aurkeztu, hala dagokionean.

**PFEZn JASO GABEKO DIRU-SARRERAK:** Desgaitasun-pentsioen ziurtagiriak, ezintasun iraunkor absolutuarena edo baliaezintasun handiarena, zurtasunpentsioarena, kaleratzearengatik kalte-ordainena edo bestelako gizarte-laguntzena (DSBE, gizarte-larrialdietako laguntzak, etab).

• **ERRENTA-AITORPENA EGITEN EZ BADA:** Jasotako diru-sarrerak, bizitzeko baliabideak edo laguntzak justifikatu beharko dira agiri bidez.

• **ZERGA EGOITZA EAE-TIK KANPO IZANEZ GERO,** horiez gain, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Zerga-aitorpena egin duten kide konputagarrien Pertsonen Fisikoen Errentaren gaineko Zerga-aitorpenaren fotokopia osoa. Errenten eta bestelako diru-sarreraren ziurtagiriak, hala nola Gizarte Segurantzaren pentsioenak eta diru-sarrerak bermatzeko errentarenak edo/eta etxebizitzarako prestazio osagarriarenak.
- Lan-etekinen ziurtagiria (10T), 2018an PFEZ aitorpena egin ez bada.
- Familia ugaria: txartela.

• **FAMILIAREN EGOITZATIK KANPO BIZIZ GERO:** Errentamendu-kontratua.

• **INDEPENDENTZIA-EGOERAK:** errolda-ziurtagiria (gurasoenaren desberdina) edo umezurtz-ziurtagiria eta eskuragarri dituen bizitzeko baliabideak.

• **Berreziketa pedagogikorako, hizkuntza berrezteko eta adimen-gaitasun handiari lotutako ikasketa-laguntza eskatzen dutenentzako DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:**

Zerbitzua ematen duen zentroak edo berreztaileak emandako memoria, zerbitzuaren ezaugarriei buruzko informazio zehatza jasotzen duena, asteko eta ikastaro bakoitzeko ordu-kopurua eta zerbitzua ematen duen espezialista barne, bai eta hileko kostua eta ikasturte bakoitzeko guztizko kostua ere

• **COVID-19k eragindako osasun-krisiak 2020ko errenta larriki kaltetzen badu:**

Alarma-egoeran langabezia, enplegu-erregulazioko espedienteetan edo jarduera-itxieran egon direlako egiaztagiria, autonomoen kasuan, gutxienez 3 hilabetez.

**BESTELAKOAK:** Bizikidetzak unitatearen diru-sarrerak justifikatzeko egoki iritziak beste edozein dokumentu, hala nola, kaleratze-likidazioak, enplegu-erregulazioko espedienteak, laguntzak eta dohaintzat behar bezala erregistratuak, etab.

*(\*)Aurreko ikasturteko deialdian aurkeztu bazen, ez da berriz aurkeztu beharko.*

## DOCUMENTACION A PRESENTAR

**VALORES CATASTRALES URBANOS:** En el caso de disponer de más de una vivienda se debe presentar copia del IBI (Impuesto de Bienes Inmuebles) de todas las propiedades de los miembros de la unidad convivencial.

• **(\*) EN CASO DE DIVORCIO, SEPARACIÓN, DISOLUCIÓN DE PAREJA DE HECHO REGISTRADA O SITUACIONES ANÁLOGAS:** Sentencia de divorcio o separación, Convenios Reguladores, Certificado de Convivencia expedido por el ayuntamiento, Justificante de la pensión o pensiones actualizadas y, si procede, los ingresos del cónyuge o pareja del padre o de la madre.

• **ABUELOS:** Certificado de Convivencia expedido por el ayuntamiento.

• **(\*) PERSONAS CON DISCAPACIDAD:** Certificado mediante el que se reconoce el grado de discapacidad.

• **(\*) MENORES EN FAMILIAS DE ACOGIDA:** Fotocopia de la Orden Foral de acogida y de las condiciones de acogida acordadas por las correspondientes diputaciones.

• **HERMANO UNIVERSITARIO:** Acreditar la matrícula y, en su caso, contrato de arrendamiento.

**INGRESOS NO RECOGIDOS EN EL IRPF:** Certificados de pensiones de invalidez, de incapacidad permanente absoluta o gran invalidez, pensión de orfandad, indemnizaciones por despido u otras ayudas sociales (R.G.I, ayudas de emergencia social, etc.)

• **EN CASO DE NO HACER DECLARACIÓN DE LA RENTA:** Deberán justificar documentalmente los ingresos económicos, medios de vida o ayudas recibidas.

• **EN CASO DE DOMICILIO FISCAL FUERA DE LA COMUNIDAD** deberán aportar además:

- Copia completa de la declaración-liquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de aquellos miembros computables que la hayan realizado.

Certificados de rentas y otros ingresos, tales como pensiones de la Seguridad Social, o de Renta de Garantía de Ingresos y/o Complemento de Vivienda de Lanbide.

- Certificados que acrediten los ingresos obtenidos por rendimientos de trabajo (10T), si no se ha hecho la Declaración de IRPF de 2018.
- Familia numerosa: carnet

• **EN CASO DE RESIDIR FUERA DEL DOMICILIO FAMILIAR:** Contrato de arrendamiento.

• **SITUACIONES DE INDEPENDENCIA:** Certificado del padrón distinto al de sus padres o certificado de orfandad y medios de vida con los que cuenta.

• **DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA** para solicitantes de ayuda al estudio para reeducación pedagógica, reeducación del lenguaje y asociada a alta capacidad intelectual:

Memoria expedida por el centro o reeducador que preste el servicio en la que conste información detallada de las características del mismo, incluyendo número de horas semanales y por curso y especialista que lo presta, así como del coste mensual y total por curso.

• En el caso de que la renta del 2020 se viera gravemente afectada por la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19:

Acreditación de que durante el estado de alarma han estado en paro, ERTE, ERE o con cierre de actividad en el caso de las personas autónomas, durante un mínimo de 3 meses

**OTROS:** Copia de cualquier otro documento que considere necesario para la justificación de

*(\*) No será necesario volver a presentarlo si lo presentaron en la convocatoria del pasado curso*

**Baratzategi, 19-20015 Donostia**

**Tfnoa: 943 29 70 23; Faxa: 943 27 90 59**

**e-posta: [info@hegoa.eus](mailto:info@hegoa.eus) [013079aa@hezakuntza.net](mailto:013079aa@hezakuntza.net)**

**Web orria: [www.hegoa.eus](http://www.hegoa.eus)**